

AKTA

UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/01/28

Ordua: 18:00-ak

Tokia: Udaletxeko Areto Nagusian

Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure

Zinegotziak:

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza
Olaia Lasa Olaziregi
Garazi Urdampilleta Astibia
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Ekain Susperregi Ibarguren
Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona
Rafael Bergaretxe Urdampilleta
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Ezin etorria adierazi dute:

Ibon Mitxelena Fernandez
Nora Velez del Burgo Zalakain
Jexux Olaziregi Bagües
Ibintza Iragorri Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. OIartzungo HAPO-ren 3. aldaketa, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion Ordenantza aldaketari hasierako onarpena eman zitzaion.
3. COPROP. MANUEL LEKUONA 8. Manuel Lekuona 8 eraikinean igogailua jarri ondoren zoru publikoaren okupazio iraunkorraren eskaera onartu zen.
4. 2026. urtean OIartzungo Udal Ikastola Partzuergoari egin beharreko ekarpenaren gaia mahi gainean geratu zen.
5. Udal eraikinen garbiketako kontratuaren luzapena onartu zen.
6. 2025 urteko udal ondasunen inbentarioan egindako eguneraketa onartu zen.

7. Erreterria, Pasaia, Oiartzun eta Lezoko udalaren artean, Oarsoaldeko jarduketa-plan integratua jasotako jarduketak gauzatzeko. Plan hori Toki-Erakundearen EGEFen (EDIL) fidantza-bidean sartuta dago, hiri-garapen jasangarriaren esparruan, eskualde-garapeneko Europako funtsari egokitua, 2021-2027 programazio-aldian, Lankidetzaren hitzarmena sinatzea erabaki zen.

8. "Ametsondoko xuxurlak" proiektua Europako dirulaguntzetara aurkezteko erabakiaren berri eman zen.

9. Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri eman zen.

10. Eskari-galderetan, EAJ/PNV partiduko Janire Mitxelena zinegotziak hainbat galdera egin zituen, Udal Ikastola Partzuergoaren eta Udalak Garbitania enpresarekin duen lan hitzarmenaren inguruan.



-I-

AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko urtarrilaren 28an egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 13 botorekin (EH Bildu 9, EAJ/PNV 4)

-II-

OIARTZUNGO HAPO-REN 3. ALDAKETA, UDALERRIKO ERABILERA TURISTIKOAK ETA TURISMO-OSTATUKO ESTABLEZIMENDUEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI DAGOKION ORDENANTZA ALDATZEA. HASIERAKO ONARPENA.

Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2025/01/29an Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketa, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuko establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion ordenantza aldatzeko, idaztea erabaki zuen, 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzari Legearen 85. artikulua arabera, urtebetez aipatu turismo-ostatuak baimentzeko lizentziak bertan behera uztea erabakitzearekin batera.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.1 artikulua eskaturiko txosten sektorialak eskatu eta udal zerbitzu teknikoek, Hiritik At aholkularitzaren laguntzarekin, HAPOaren aldaketarako agiriak idatzi dituzte. 2025/07/23an Partehartze Programan fase honetarako aurreikusitako saioak egin ziren, Plangintzako Aholku Kontseiluarena barne. Ezarritako epean jasotako txosten sektorialak, Eusko jaurlaritzako Kultura eta hizkuntza politikako Sailarena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendarena eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Departamentuarena, aldekoak izan dira. Horien ondorioz ez da egokitzapen nabarmenik egin hasierako onarpena izango duen testuan, ez baitute ezartzen lehen bertsioan kontuan hartu ez den baldintzarik.

HAPOaren aldaketaren helburua Oiartzungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan, erabilera turistikoko logelak, eta bereziki ostatu-erabilerak (ostatuko establezimenduak eta erabilera turistikoko etxebizitzak) modu egokitu, ordenatu eta proportzionalean arautzea da. Udalerriak bermatu beharreko interes publiko nagusiak kontuan hartuta, horien artean, hiritarrek etxebizitzarako duten eskubidea, bizikidetzeta eta ordena publikoa, ingurumen-jasangarritasuna eta lurralde-oreka eta kontsumitzaileen bermea eta segurtasuna.

Aldaketa hirigintza-araudi orokorreko artikuluen zati bat proposatutako helburuetara egokitzea mugatzen da, zehazki, honako artikulua hauetan: 19. artikulua. Lurzoruaren hirigintza-erabilerei buruzko araubidea. 36. artikulua. Erabilera baldintzak eta etxebizitza kopurua. 37. artikulua: Behe-solairuetan erabilera baldintzak. 39. artikulua: Goi-solairuetako erabilera baldintzak. 40. artikulua: Estalkipeko erabilera baldintzak. 54. artikulua: Kasko tradizionalen azpierreduetarako etxebizitzaren erabilerak eta kopurua arautzea. 60. artikulua: Egoitza-azpizona intentsiboetarako berariazko araudia. 62. artikulua: Garapen txikiko egoitza-azpizonetarako baimendutako erabilerak eta 73. artikulua: Jarduera ekonomikoetarako lursailetan erabilerak arautzea.

Udal arkitektoak egindako txostenaren arabera, Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorrak (GAO 87, 2015/05/12), 4. artikuluan dio, aldaketa oro interes orokorreko arrazoieta oinarritu beharko dela, eta haren zehaztapenen deskribapen zehatza eta duen arrazoiaren edo funtsaren justifikazio espressa jasotzen dituela ondorioztatu du.

Udal hirigintza teknikariak esku hartzeko irizpideek ekartzen dituzten neurriei buruzko txostena egin du, Erabilera Turistikoko Logelak (ETL), Erabilera Turistikoko Etxebizitzak (ETE) eta ostatu-establezimenduak ezartzeko araudiaren baldintzak zehazten dituena.

Ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokionez berriz, Industria, trantsizio energetiko eta jasangarritasun saileko Ingurumen sailburuordetzak, 2025/07/22an emandako txostenaren arabera, HAPOaren aldaketak hirilur eta lur urbanizagarri bezala sailkaturiko eremuei eragingo die, eta ez du lur ez urbanizagarri bezala sailkatutako eremuan ondoriorik izango. Hain zuzen ere, Oiartzunen turismo erabileren eta ostatuen araubide berriak ingurumenean eraginik ez duela izango edo izatekotan eragina positiboa izango dela zehazten da dokumentuan; beraz, planak ez du ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura izapidetu behar, ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren helburutik eta xedetik kanpo dagoelako.

Aurreko aurrekariak ikusita, aplikatu beharreko araudia eta azaldutako doktrina kontuan hartuta, espedientearen dagoen txosten juridikoan oinarrituta, uste da ebazpen-proposamen hau aplikatzekoa den legeriara egokitzen dela, eta hasierako onarpena Udalbatzaren Osoko Bilkurari ematea dagokiola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 104. artikuluetan, Lurraldearen Antolamendurako Planak eta Hirigintza Antolatzeko Tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27. eta 36. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2.1) artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkaria eta Udal arkitekto teknikoaren txostenarekin baitan eta Lurraldeko batzordeak 2026eko urtarrilaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Oiartzungo Hiri Antolaketako Plan Orokorraren 3. aldaketa, udalerriko erabilera turistikoak eta turismo-ostatuak establezimenduen hirigintza-antolamenduari dagokion ordenantza aldatzeko dokumentuari, 2025eko abenduan idatzitakoari, Hasierako onarpena ematea.

Bigarrena.- Plan Orokorraren aldaketaren hasierako onarpena jendaurrean jartzea, 45 eguneko epean, udaletxeko iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiagoko egunkari batean iragarkia jarritz.

Hirugarrena.- Eskumena duten administrazio sektorialeiei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen, kontsultak eta txostenak, eta horien gogoetak eta oharrak Planaren zehaztapenetan sartuko dira. Epe horretan, espedienteaz aztertu nahi duen edozeinen eskura egongo da, egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

Laugarrena.- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 85. artikuluen arabera, era guztietako onarpen, baimen eta lizentzien emakida etetea plangintzaren xede den lurraldeko eremuetarako, baldin eta zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Hauek dira etendurak eragindako eremu horiek: hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren sailkapena duten lurretan, eremu hauek salbuetsita: ELI-3B, LAN-1A, ARR-3A eta LIN-8.

Bosgarrena.- Alkatetzari ahalmena ematea gainerako izapideekin jarraitzeko.

Alkateak hitza hartzen du eta ebazpen proposamena azaltzen du. Ondoren, EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du honakoa adieraziz.

“Alde batetik, beraien taldetik positibotzat jotzen dute etxebizitzaren erabilera turistikoa antolatzen hastea. Bestalde, bat datozela turismo-etxebizitza osoei buruzko txosten juridikoaren edukia zati handi batekin, jarduera kontrolagarria, erregistragarria eta hirigintza-araudiarekin bateragarria delako.

Jakinarazi du ez dutela oso argi ikusten "logela turistikoaren" modalitatea den parte hori. Beraien ustez, logela turistikoek ez dute kalitatezko turismorik ekartzen, eta zaila iruditzen zaie praktikan hori nola gauzatuko den eta nola eramango den kontrolatzea, gainera hein handi batean, ez duela etxebizitza eskuratzeko arazoa konpontzen, eta aldiz, informaltasuna eta ezkutuko ekonomia ere sustatu dezakeela dio zinegotziak.

Aipatzen du turismoaren fenomenoaren ondo azaltzen duen alderdi bat, hau da, orokorrean aipatzen ez den turismoaren errentagarritasuna beti kontuan eduki behar dela. Gehienetan jabe askok alokairu turistikoaren alde egiteko arrazoia ez dela ideologikoa, ekonomikoa baizik; normalean etxebizitza turistikoa errentagarriagoa dela alokairua baino. Diferentzial hori dagoen bitartean, merkatuak erabilera turistikora bultzatzen duela eta etxebizitza bizitegi-erabileratik ateratzen duela azpimarratzen du.

Etxebizitza turistikoek Oiartzun bezalako bizitegi-udalerrri batean ondorio argiak dituela dio: gazte eta familientzako alokairu eskaintza txikiagoa, eta herrian bizitzeko zailtasun gehiago eta gizarte-onuraren galera ekartzen duela aldarrikatu du. Gainera, Donostia helmuga turistiko finkatua denez eta Oiartzun Donostiatik gertu dagoenez zuzenean eragiten digun faktorea dela aipatu du.

Horregatik, hurrengo urteetan erabilera turistikoak etxebizitzaren merkatua edo jabekideen elkargoetako bizikidetzak baldintzatu ez dezan orain arautzen hastea garrantzitsua dela, aipatzen du Janire Mitxelenak. Helburua ez da gaur egungo arazo bat arautzea baizik eta etorkizunari begira arazoa ekiditea.

Horregatik, beraien ustez, bizitegi-funtzioa babestu nahi bada, errentagarritasunaren zati bat kendu behar zaio etxebizitza turistikoari eta ohiko alokairuari eman errentagarritasun hori. Kontua ez da debekatzea, orekatzea baizik. Errentagarritasun turistikoa jaisten bada, ohiko bizitegi-errentamenduari eusten baldin bazaio, etxebizitza gehiago egongo dira bizileku moduan; hots, alokairu turistikotik ohiko alokairura bueltatuko direla dio.

Eta hori da beraien ustez Oiartzunek behar duena. Gainera, etxebizitza turistikoak benetako udal inpaktua eragiten du. Ez dira hondakinez bakarrik ari; energia kontsumoaz, ur kontsumoaz, saneamenduaz, etengabeko txandakatzeaz eta zerbitzu publikoen eta hiri-espazioaren higaduraz ari direla dio. Auzokide batek kontsumo eredu normal eta egonkorra izaten du eta turistak berriz gehiago erabiltzen duela eta gehiago higatzen duela azpimarratu du. Konpentsazio mekanismorik ez badago, azkenean herritarrek ordaintzen dutela azpimarratu du.

Horregatik uste dute etxebizitza turistikoei tasa turistikoa ezartzea errentagarritasun diferentziala zuzentzeko eta udalaren eragina konpentsatzeko tresna logikoa dela. Tasak ez du turismoa zigortzen; kontributiboa eta orekatua dela dio. Alokairu arruntarekiko diferentzia murriztea ahalbidetzen eta etxebizitza bere bizitegi funtziora itzultzen laguntzen duela azaldu du zinegotziak.

Etxe turistikoak baldin badaude, zerbitzuak behar bezala eman behar dira; hau da, garbitasunak, mantentze-lanak eta horiekin lotutako edozein lanek Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar dutela azaltzen du Janire Mitxelenak. Bestalde, legezketasunaren barruan ez du zentzurik udalerrriak inpaktuak bere gain hartzea.

Jarduera badago, kontributiboa izan dadila, eta enplegua baldin badago, enplegu egokia izan dadila dio. Azken batean, beraien jarrera argia dela azpimarratu nahi izan du, hau da, ados daudela etxebizitza turistiko osoetarako txosten juridikoak planteatzen duenarekin baina, uste dute logela modalitateak ez duela kalitatezko turismorik ematen eta ate hori behintzat ez dela ireki behar gainera, erregulazio horren osagarri logikoa etxebizitza turistikoetarako tasa turistikoa dela azpimarratu du, helburua errentagarritasuna kentzea, inpaktuak zuzentzea eta zerbitzu publikoak hobetzea izanik.

Jarrera horrekin eta norabide horretan alegazioak jarriko dituztela adierazi du, baina gaurkoan hasierako onarpenaren aldeko botoa emango dutela dio.”

Alkateak hitza hartzen du adieraziz orain Janire Mitxelenak azaldu duen irakurketa ustez udal taldeak egindako diagnostikoaren berdina dela eta hain zuzen ere horregatik ari direla Udaltzatza honetan gai hori lantzen. Alegia, etxebizitza eskubide bat dela udalak bermatu nahi duena; ulertzen da geroz eta etxebizitza turistiko gehiago egon, orduan eta gutxiago daudela bizitzeko, eta hortik abiatu zen lan hau.

Konklusio honetara momentu desberdinetan iritsi direla azaltzen du alkateak, hau da, udalak irakurketa hau aurkeztutako ordenantza egiten hasterako egin zuela. Aldiz, ez bazen orain eztabaidatzen ari diren araubide hau sortuko, edozeinek jarriko zukeen edozein lekutan bere etxebizitza turismora destinatuta. Bestalde, aldarrikatu du alderdi teknikitik lanketa oso xehea eta oso zehatz mugatu dela ordenantza, nahiz ulertuta jarduera ekonomiko bat dela eta horretarako eskubide bat ere eman behar dela, baina honen helburua etxeak bizitegi izatean datza.

Beraz esandako guztia kontutan hartuta, Idazkariaren eta Udal Arkitekto Teknikoaren txostenaren baitan eta Lurralde batzordeak 2026ko urtarrilaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzatza, aho batez, onartu du Oiarzungo HAPO-aren hirugarren aldaketa.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-III-

COPROP. MANUEL LEKUONA 8. MANUEL LEKUONA 8 ERAIKINEAN IGOGAILUA JARRI ONDOREN ZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIO IRAUNKORRA

COPROP MANUEL LEKUONA 08 HERRERIA ETXEA jabekideen elkargoak Manuel Lekuona 8 helbidean igogailuaren obra egin ondoren, obra amaierako dokumentazio gehigarria aurkeztu du.

Obra amaierako dokumentazioa Ion Garmendia de Las Muñecas arkitektoak 2025/03/05ean egindako eta EHAEOak 2025/03/12an sendetsitako dokumentazioa da.

Udal Zerbitzu Teknikoak ikuskapena egin du 2026/01/05ean eta egin den obra bat dator baimendu zenarekin.

Zoru publikoaren okupazioaren planoa egokia da. $2,46 \times 1,73 = 4,26 \text{ m}^2$ -ko okupazioa dago.

Beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen zaio Udal Batzaren Osoko Bilkurari:

AKORDIOA

Bakarra.- COPROP MANUEL LEKUONA 08 HERRERIA ETXEA jabekideen elkargoak, Manuel Lekuona 8 helbidean igogailuaren obra egin ondoren, aurkeztutako obra amaierako dokumentazioa onartu da, 2026ko urtarrilaren 19ko alkatetzako dekretu bidez (2026/121), eta zoru publikoaren okupazio iraunkorra dagoenez igogailuaren ondorioz, Udal Osoak onartu beharko du behin betiko okupazioa.

Bigarrena.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik tasa ordaindu beharko da. Aurkeztu den planoa egokia da. $2,46 \times 1,73 = 4,26 \text{ m}^2$ okupazioa dago beraz, horren baitan kalkulatzeko da tasa, m^2 ko edo zatiko eta urteko edo zatiko 6,80€.

2026. urteko ordenantza fiskalen arabera, kalkulua, $4,26 \text{ m}^2 \times 6,80€ = 28,97€/ 2026$ urtean.

Izenburuan aipatutako helbidean igogailuaren obra egin dela azaltzen du Alkateak. Obra amaierako dokumentazio gehigarria aurkeztu ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek ikuskapena egin dute eta ikusi dute obran baimendutako erabilera egokia egin dela. Obrak 4,26 metro karratuko okupazioa izango du.

Beraz, Lurralde batzordeak 2026ko urtarrilaren 21ean emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Coprop. Manuel Lekuona 8.-ik Manuel lekuona 8 eraikinean igogailua jarri ondoren zoru publikoaren okupazio iraunkorra.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-IV-

2026. URTEAN OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOARI EGIN BEHARREKO EKARPENAREN ONARPENA.

Gai hau mahi gainean geratuko dela eta hurrengo Udalbatzan landuko dela jakinarazten du Alkateak.

-V-

UDAL ERAIKINEN GARBIKETAKO KONTRATUAREN LUZAPENA ONARTZEA.

2025eko martxoaren 6an, Oiartzungo Udalaren Osoko Bilkurako Batzarrak erabaki zuen Oiartzungo udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L. enpresari esleitzea, ondorengo zehaztapenekin:

- Ohiko garbiketa zerbitzua: urteko 670.340 euro (BEZa barne)
- Beilatokiko garbiketa zerbitzua: zerbitzuko 55,66 euro (BEZa barne)
- Garbiketa zerbitzu berezia: orduko 30,25 euro (BEZa barne)

Kontratua 2025eko martxoaren 31ean formalizatu zen, eta hasierako iraupena urtebetekoa da kontratua sinatzen denetik; hau da, 2025eko apirilaren 1etik 2026ko martxoaren 31ra. Hiru luzapen ere aurreikusten dira, bakoitza urtebetekoa.

Kontratuaren arduraduna den udal arkitekto teknikoak txostena egin du, eta GARBINDU LIMPIEZAS Y MANTENIMIENTO S.L. enpresak emandako zerbitzuaren balorazioa egin du: ondorioztatu du, oro har, kontratua egoki bete duela enpresak. Horrenbestez, aurreikusitako urtebeteko lehenengo luzapena egitea proposatzen du.

Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak aurreikusten duen prozedura jarraiki, horrek kontratazio organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, udal teknikariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko urtarrilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

Beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen zaio Udal Batzaren Osoko Bilkurari:

AKORDIOA

Lehenen.- Onartzea Oñartzungo udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena, 2026ko apirilaren 1etik 2027ko martxoaren 31ra artekoa, baldintza eta ezaugarri berdinetan.

Kontratuaren iraupen epea amaitzeko bi hilabete baino gehiago falta direnez, luzapena nahitaezkoa izango da enpresarentzat, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 29.2 artikulua eta Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiriko "I. Kontratuaren edukia" ataleko 2. klausulako bigarren paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Bigarrenen.- Gastu hori udalaren aurrekontuko honako partida hauen kontura kontabilizatuko da:

- 1 0102.227.920.00.01.2026
- 1 0103.227.929.00.01.2026
- 1 0212.227.153.40.10.2026
- 1 0221.227.170.00.04.2026
- 1 0223.227.172.10.01.2026
- 1 0311.227.323.00.01.2026
- 1 0311.227.324.00.01.2026
- 1 0313.227.323.00.01.2026
- 1 0321.227.335.00.10.2026
- 1 0331.227.334.00.02.2026
- 1 0332.227.330.00.10.2026
- 1 0341.227.230.00.01.2026
- 1 0342.227.337.10.98.2026
- 1 0351.227.337.20.10.2026
- 1 0352.227.342.00.01.2026
- 1 0361.227.432.00.01.2026

Alkateak ebazpen proposamena azaltzen du.

Beraz, Azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak aurreikusten duen prozedura jarraiki, horrek kontratazio organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, udal teknikariaren txostenaren baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko urtarrilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oñartzungo udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VI-

2025 URTEKO UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN EGUNERAKETA

Aurten udal ondasunen inbentarioan barne sartzeko aldaketak honekin batera eransten den inbentarioaren kudeaketa programak sorturiko txostenetan agertzen dira.

Guzti hau kontuan hartuta eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko urtarrilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio.

Beraz, honako akordio hau onartzea proposatzen zaio Udal Batzaren Osoko Bilkurari:

AKORDIOA

Bakarra. - Onartzea honekin batera jasotako 2025eko altak, bajak eta aldaketak

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren, bozkara pasatzen dira.

Beraz, Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026eko urtarrilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oiartzungo udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VII-

LANKIDETZA-HITZARMENA, ERRENTERIA, PASAIA, OIARTZUN ETA LEZOKO UDALAREN ARTEAN, OARSOALDEKO JARDUKETA-PLAN INTEGRATUAN JASOTAKO JARDUKETAK GAUZATZEKO. PLAN HORI TOKI-ERAKUNDEEN EGEFEN (EDIL) FIDANTZA-BIDEAN SARTUTA DAGO, HIRI-GARAPEN JASANGARRIAREN ESPARRUAN, ESKUALDE-GARAPENENKO EUROPAKO FUNTSARI EGOKITUA, 2021-2027 PROGRAMAZIO-ALDIAN.

Oarsoaldea 2017-2025eko Plan Estrategikoa, OARSOALDEA, S.A.ren Administrazio Kontseiluak 2017ko azaroaren 17an aho batez onartutakoa, elkarte osatzen duten udalerrien adostasunarekin onartu zen.

2026-2030 aldirako Planaren bertsio berri bat egin zen, zeina Oarsoaldeko Plan Estrategikoaren barruan kokatzen den, eta eskualdeko erronka nagusiei heltzea helburua duen. Helburu horrekin, proiektu eraldatzaile, berritzaile eta ukgarrietara bideratutako Jarduketa Plan Integratua (JPI) onartu zuten 4 udalek: Pasaia, Lezo, Erreenteria eta Oiartzun.

Aldi berean, 2021-2027 programazio-aldiko kohesio-politikaren esparruan, Ogasun Ministerioak urriaren 2ko HAC/1072/2024 Agindua onartu zuen. Agindu horren bidez tokiko erakundeek Jarduketa Plan Integratuei EGEF finantza bidearen esleipena arautzen duten oinarriak onartu ziren, Hiri Garapen Iraunkorraren esparruan, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren kargura, 2021-2027 programazio-aldian.

Testuinguru horretan, Oarsoaldeko eskualdeak —Erreenteria, Pasaia, Oiartzun eta Lezok osatua— ekonomia, ingurumen eta gizarte arloetan aurrera egiteko asmoz, eskualde-ikuspegi berri bat bultzatu nahi da, intereseko hainbat arlori helduko diona eta herritarren eguneroko bizitzan onura zehatz eta nabariak sortuko dituen. Helburu nagusia da pertsonen arteko lotura erraztuko duten eta hiri-bizitza eskualde osoan zehar modu kohesionatuan egitea ahalbidetuko duten bideak eta espazioak prestatzea eta sustatzea.

Ondorioz, eskualdeak Jarduketa Plan Integratua (JPI) egin du, Erreenteria, Pasaia, Oiartzun eta Lezoko Udalek onartua, HAC/1072/2024 Aginduaren 11.3 artikuluan ezarritakoarekin adostasunean.

Onartutako JPIaren arabera, lau proiektu estrategiko jarriko dira abian, Oarsoaldearen nortasuna, indarra eta hazteko gaitasuna berreskuratzeko, baterako lanean eta erronkak aukera bihurtzean oinarrituta, ikuspegi jasangarri, berritzaile eta kohesionatu batekin. JPIak lau erronka nagusi identifikatzen ditu, ezarritako sei ildo estrategikoetatik lauren bidez jorratuko direnak.

Hauek izanik:

- 1G. Arditurriko bide berdea: Oarsoaldearen ardatz egituratzailea. Arditurriko bide berdearen inguruan ibilbide artikulatuen sarea osatzea, turismo-erabileratik harago, eskualde osoko eguneroko bizitzaren lotura, oinezkoena eta txirrindena, ahalbidetzeko.
- 2G. Tokiko Merkataritza indartzen: Hurbileko ekonomia bultzatzea. Oarsoaldeko tokiko merkataritza dinamizatzea, baliabideez hornituz eta hura ezartzen eta denboran irauten lagunduko duten kanpainak eginez.
- 3G. Eszena sozial bizigarria: Pertsona guztientzako espazio publiko osasuntsuago baten alde. Hainbat espazio publiko berrurbanizatzea, haien hiri-kalitatea hobetzeko, irisgarriagoak, erosoagoak, seguruagoak eta erakargarriagoak herritar guztientzat izan daitezzen.
- 4G. Ekipamendu komunitarioak: Eskualdeko bizitza sozialaren katalizatzaileak. Eskualdeetan eragina duten ekipamenduak birgaitzea

2025eko otsailaren 26an Oiartzungo Udalaren Osoko Bilkurako Batzarrak, beste batzuen artean, ondorengo akordioa hartu zuen:

“**Lehenengoa.**- Oarsoaldea Bidean: giza eskala mugimenduan izeneko Jarduera Plan Integratua (PAI) onartzea.

Bigarrena.- Adieraztea Oiartzungo udalerrian gauzatu beharreko jarduerak finantzatzeko dagokion Jarduketa Plan Integratua gauzatzeko finantzatzeko kreditu egokiak eta nahikoak dituela edo, bestela, kreditu horiek gaitzeko konpromisoa hartzea.”

Proiektuaren exekuzioa udal guztiek gauzatu beharko duten arren, dirulaguntzaren eskaera eskualdeko lau udalerriek elkarrekin egin dute, eta adostu dute proiektuaren kudeaketa Erreterriako Udalak hartuko duela.

Azkenik, Estatuko Gobernu eta Ogasun Ministeritzak 2026ko urtarrilaren 16ko ebazpen eman du dirulaguntzen eskaerak ebatziz eta Oarsoaldeko 4 proiektuen finantzaketa bertan ageri da.

Beraz, esandakoak kontutan hartuta honako akordio hau onartzea proposatzen zaio Udal Batzaren Osoko Bilkurari:

AKORDIOA

Bakarra.- Onartzea lehenengo eranskinean dagoen lankidetzahitzarmena: “Lankidetzahitzarmena, Erreterria, Pasaia, Oiartzun eta Lezoko udalaren artean, Oarsoaldeko jarduketa-plan integratuan jasotako jarduketak gauzatzeko. Plan hori Toki-Erakundearen EGEFen (EDIL) fidantza-bidean sartuta dago, hiri-garapen jasangarriaren esparruan, eskualde-garapeneko Europako funtsari egokitua, 2021-2027 programazio-aldian.

Alkateak ebazpen proposamena azaldu ondoren bozkara pasa dira.

Beraz, ikusirik Udal kontuhartzaileak aldeko txostena egin duela Jarduera Plan Integratuaren proiektuak burutzeko beharrezkoa den lankidetzahitzarmenari buruz, eta Idazkariak ere, bere txostenean, lankidetzahitzarmena onartzea proposatzen duela, Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko

urtarrilaren 22an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oiartzungo udal-eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren lehen luzapena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

-VIII-

**AMETSONDOKO XUXURLAK" PROIEKTUA EUROPAKO DIRULAGUNTZETARA
AURKEZTEKO ERABAKIAREN BERRI EMAN.**

Nahiz eta ez den Udalbatzan landu beharreko gaia, Alkateak honen inguruan berri eman nahi izan du. Jakinarazi du Europako beste diru-laguntza batera aurkeztekotan dela udala, zehazki CREA diru-laguntzetara. Proiektu hau kulturara bideratutakoa dela, hau da, Liburutegia berritzeko egindako parte-hartze prozesuan ateratako ondorioei erantzutera datorrela argitu du. Hiru urtetan lanketa zehatz bat egin ondoren, hiru urtean zehar haur-literaturako Europako sei liburu euskarara itzultzea da helburu. Lehen urtean liburu bat, bigarren urtean bi eta hirugarrenean hiru.

Proiektuak mugaz gaindiko izaera duela azaldu du, mugaz bestaldeko enpresa txiki batekin landuko dela alegia. Horretaz gain, herrian bertan dagoen argitaletxearekin ere, zehazki, 1545 (hamabost-berrogeita-bost) argitaletxearekin, bertako ekonomia indartzea ere badela ulertuta.

Aurrekoa azaldu ondoren, Alkateak Idazkariari hitza ematen dio Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri emateko.

-IX-

**BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN
(ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO
GASTUEN BERRI EMATEA.**

Idazkariak honakoen berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2025eko abenduaren 18tik 2026ko urtarrilaren 23ra arte.

Zk. 2025/2191tik 2025/2252era eta 2026/1etik 2026/188ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026ko urtarrilaren 13an eta 27an, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2025eko abenduko gehikuntza

Bazkariak - luntxak	1.199,10
Bidaiak	181,43
Ikurriñak, garaikurrak, plakak, oprariak...	222,30
Guztira	1.602,83

2026ko urtarila gastuak:

Loreak, eskelak	50
Bdalketak, materiala	22,88
Guztira	72,88

-XI-

ESKARI-GALDERAK

EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hainbat galdera egin ditu.

“Lehenik, Urmendi Haurreskolaren gaiaren harira, gogorarazi nahi izan du Urmendi sare publikoan sartuko den ala ez erabakitzeko epe-muga amaitzeaz dagoela. Aurreko osoko bilkuran urgentziaz Udalak 2 urteko gela titulartasuna Ikastolari lagatzea erabaki zuela eta erabaki hau beraien taldearen ustetan erabaki oso esanguratsua izan dela adierazi du. Ikastolaren indartzea dakarrela dio eta eredu kontzertaturantz mugitzen duela uste dute. Horregatik, beraien nahia Udala Gobernuak Urmendiren etorkizunari dagokionez zein asmo duen argitzea nahi dute, ea sare publikoan sartuko den (gaur egun Partzuergoak kudeatuta) edo itundutako ereduari lagatzea aurreikusten den.”

Alkateak hitza hartzen du. Aditzera eman du, egindako galderan bi gai ezberdin daudela lehenik, Urmendik 0-3 zikloa egin duela orain arte eta 2 urteko gela OIartzungo Ikastola Partzuergotik (OIUPetik) ateratzea dela lehen pausua. Beraz, hori egin beharrekoa zenez, alegia gauden bezala jarraitu ala Haurreskolen Partzuergoan sartu, erabaki hori urgentziaz onartu zen aurreko Udalbatzan, ondoren hartu beharreko erabakietan aurrera jarraitu ahal izateko. Bigarrena gaia aldiz, lehen esan duen bezala hurrengo Udalbatzan eztabaidatuko denez, erantzuna ordurako utziko duela esan du.

Berriz ere Janire Mitxelenak hitza hartzen du beste gai bat lantzeko.

“Mozio bidez aurkeztu nahi izan duten informazio eskaera bat dela dio, baina urgentziaz ez denez onartu, nahi duten informazio eskaera egiteko eskari-galdera tarte hau erabiltzea erabaki dute. Beraien ustez presazko gaia dela dio, dagoeneko beste udaletan OIartzunen Garbitania Zero Zabor-eko integrazioa eztabaidatzen ari direlako eta beraiek momentuz oraindik ez dutela txosten ekonomikorik ezta informazio zehatzik jaso azpimarratu du.

Bestalde, OIartzungo Udala Garbitania Zero Zabor sozietate publikoan bazkide gisa sartzeko izapideak egiten ari dela udala dio zinegotziak. Egungo 130.000 euroko ekarpen ekonomiko baten bidez (kopuru hori indarrean dagoen udal aurrekontuan jasota dago). Hala ere, Udala Kontu-hartzaileak adierazi die aurrekontu-aurreikuspen horrek ez duela aurretiazko balorazio ekonomikorik, ezta udalaren aurrekontuan izango duen eraginari buruzko azterketa ekonomiko-finantzariorik ere.



Gaur-gaurkoz, ezin da baieztatu Udalak formalki aurretiazko azterketa ekonomiko hori jaso duenik. Eskuratu nahi diren partaidetza-balorazio ekonomikoa, sozietatearen bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa eta eragiketa honek Oiartzungo Udalaren diruzaintzan (epe labur eta luzean) izan dezakeen aurrekontu-eragina falta direla jakinarazi du Mitxelena andereak.

Beraien taldearen iritziz, zinegotziek beren eginkizuna arduraz eta ezagutza osoz bete ahal izateko, ez da onargarria halako garrantzia duen erabaki bat hartu aurretik informazio ekonomiko objektibo, egiaztatu eta nahikorik ez izatea. Gogoratu nahi izan du Oiartzungo Udalaren San Markos Mankomunitatetik irteera, beste faktore batzuen artean, eraginkortasunari eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako arrazoieta oinarritu zela.

Horiek horrela hainbat eskaera egin dituzte. Lehena, Oiartzungo Udalarik eskatzea Garbitania Zero Zabor sozietate publikoan integratzeari buruzko behin betiko erabakirik ez hartzea, eragiketari buruzko azterketa ekonomiko-finantzario osoa esku artean izan arte.

Bigarrena, Garbitania Zero Zaborri eskatzea Oiartzungo udalerrian emandako zerbitzuaren kostuari buruzko balorazio ekonomikoa.

Azkenik, Udal Kontu-hartzaileari eskatzea txosten ekonomiko-finantzario propioa egitea.”

Janire Mitxelena andereak esandakoari erantzunez, Alkateak aditzera eman du ez zaiela presazko gaia iruditu alegia, gaurko batzarrean ez dela eztabaidatu beharreko gaia. Dena den, beraiek ez dutela inongo momentuan esan finantza-azterketa zehatz bat egin den ala ez, gaurkoz ez dagokiola.

Baina neurri batean, gezurretan ari dela akusatu dio Alkateak Janire Mitxelena andreari, adierazi dio badakiela bideragarritasun plan bat egin dela. Bestalde, poligonoetako bilketa sistema aldagetak ekonomikoki edukiko duen eraginaren berri ere eman zitzaioela esan du Alkateak gainera azpimarratu nahi izan du horretan oinarrituta ari direla aurrera pausuak ematen.

Alkateak harridura handiz hartu du Janire Mitxelenak egindako galdera. Hondakinen kudeaketaren gastua zero defizitera iristeko hartu nahi ziren neurriak bi alderdiek adostutakoak izan direlako, beraz, erabaki hori hartu ondoren udal gobernuak ez duela gardentasunez jokatu edo ez dituela behar bezala bere lanak burutu, lekuz kanpo dagoen akusazioa dela dio Alkateak.

Bestalde azpimarratu du, Garbitaniaren integrazioaren gaia Udalbatzara ekarriko den momentua baino lehenago egingo direla aipatutako azterketak eta orduan eztabaidatuko dela gai hau. Jakinarazi du ez dela inongo sorpresarik egongo lehendik erakutsitako datu berdinekin jarraitzen dutela eta.

Janire Mitxelena zinegotziak aditzera eman du, “berak kontuhartzailearekin edukitako elkarrizketa ondoren, honen informazio faltarengatik ez zitzaioela argi geratu ze bideragarritasuna eduki zezakeen Garbitaniaren integrazioak, baina baieztatu du Alkatetzarekin aztertutako txostenean badagoela bideragarritasun plana.”

Horiek horrela Alkateak konfirmatu du Janire Mitxelenak ikusi duela txostena eta hortik aurrerako lanak ez direla egin oraindik. Gaurko gaia ez da Udala Garbitanian sartuko den ala ez; hori otsaileko udalbatzan landuko den gaia izango dela eta momentua iristen denean egingo dituela Kontu-hartzaileak egin behar dituen lanak. Beraz, denborak eta etapak ez erretzea gomendatu du Alkateak baina bitartean lanean jarraitzen dutela adierazi du.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 18:40ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen



Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria



Sin.: Joana Mendiboure



Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga



EKS | CSV: ESKUaf1ceee6-8f2e-4267-a1b5-0d416adb6793

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026ID370001-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)